

## “OINEZKO, EZ HONDATU ZURE BIZITZA”.

### I. ARGAZKI LEHIAKETA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EDIZIOA

Euskal Autonomia Erkidegorako “OINEZKO, EZ HONDATU ZURE BIZITZA” I. ARGAZKI LEHIAKETA jarri da abian. Ebazpena eman ondoren, hamabi argazki hautatu eta erakusketa ibiltaria egingo dugu herritarrek, irudien bidez, herri barruko mugikortasunari buruzko gogoeta egin dezaten bultzatzeko.

#### 1. HELBURUAK

Parte hartzaileek hiri-inguruetako erabiltzaile ahulenek izan ditzaketen arriskuak nabarmendu beharko dituzte argazki erreportaje baten bidez. Izan ere, helburua da trafiko istripuen zergatien eta ondorioen gaineko gogoeta eragitea, bide-segurtasunaren aldeko kultura berria bultzatzeko eta, hori baliatuz, ezbeharrak murrizteko.

- Argazkia adierazpen soziltzat hartuta, haren bidez, errepidetako arazoak ezagutarazi.
- Argitaratu gabeko argazkiaklortu oinezko edota txirrindularientzako arriskutsuak izan daitezkeen egoerak agertuz.
- Irudien bitartez, gogoeta gune bat sortu erakusketa ibiltarira joango den jendearen artean.
- Irtenbideak bilatzea sustatu.

#### 2. PARTE HARTZAILEAK <sup>1</sup>

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu dezake.

#### 3. GAIA

Argazkiak honakoak adierazten: oinezkoen edota txirrindularien portaera arriskutsuak edo ezegokiak bidean/errepidean, eta haiekaurre egin behar dizkieten arriskuei, hiri barruan edota landa-ingurunean, hiri-altzari, seinaleztapen ezegoki, oztopo arkitektoniko eta abarrek eragindakoak.

<sup>1</sup>Sariren bat hutsik geratzen bada, Stop Accidentes elkartearen esku geratuko da. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.



Argazkiek bide-segurtasunari eta horren garrantziari buruzko testua, slogana edo mezua eroan beharko dute. Lanek lehiaketaren gaiari eta edukiei lotuta beharko dute izan; baldintza horiek bete ezean, kanpoan geratuko dira.

Gaiaren sormena, originaltasuna eta mezua baloratuko dira.

#### 4. LAN KOPURUA

Lehiakide bakoitzak, gehienez, argazki bi aurkeztu ahalko ditu. Bietatik onena hautatuko da, beraz, sari bakarria izango du.

Argazki guztiak behar dute izan originalak eta argitaratu gabeak. Ez da onartuko beste lehiaketa batzuetara bidalitakoak ezta argitaratzeko bidalitakoak ere.

Formatu digitalean bidaliko dira, eta edozein teknika erabili ahalko da: photoshopa eta abar.

Parte hartzaileek lan originalak direla eta beraiek egin dutela ziurtatuko dute, Jabetza Intelektualaren legeak zehazten duenaren arabera. Hartara, bermatu egingo dute beraiek direla egileak eta, lehiaketa honetara aurkeztutako lana argitaratu gabekoa eta originala dela.

#### 5. ARGAZKIAK ZELAN AURKEZTU

Argazkien artxibategiak batetik bira zenbatuko dira.

Lehiakide bakoitzak pakete bakarria aurkeztuko du. Bertan euskarri digitala eta argazkia sartuko ditu gutun-azal itxi batean, zeinean kanpoaldean honakoak ageriko diren: argazkiaren zenbakia, titulua, gaiari buruzko esaldia, slogana edo argazki-oina. Halaber, gutun-azal barruan honakoak ageriko dira: egilearen izena eta bi abizen, helbidea, telefonoa eta NANA. Datu hauek ezin dira ageri argazkien artxibategian eta ez gutun-azal itxiaren kanpoaldean ere. Lehiakidea identifika dezakeen edozein marka daukan gutun-azalik balego, deskalifikatuta geratuko da.

Lanak non aurkeztu: gutun-azal itxian EAEko Stop Accidentes elkartearen egoitzan, Pinondo Etxea, Pinondoplaza 1, 48200 Durango-Bizkaia. Postaz ere bidali daiteke aipaturiko helbidera. Formatua dela eta, argazki digitala JPGn grabatuta izan behar da CD-ROM edo DVD batean.

#### 6. EPEAK

Argazkiak jasotzeko epea honakoa izango da: oinarria hauek argitaratzen diren



egunetik hasi eta 2013ko abenduaren 9an amaitu.

Esklusiban lagatzeak, zirkulazio-istripuetan kaltetuei laguntza eta orientabidea emateko elkarteari, Stop Accidentes-ieskumena ematen dio lana erabiltzeko, berak edo hirugarren baten bidez. Formatua eta euskarria ere edozein erabili ahalko du, baita gaur eguneko sistema, prozedura edo moduan ere, doan edo ordainetan, eta Jabetza Intelektualari buruzko legean ezarritako epean ustiatu ahalko da mundu osoan. Halaber, irudien gaineko eskubideak ahalbidetzen dio legeak: finkatzeko eskubideak, erreproduzio zuzena edo zeharkakoa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldatzea.

Stop Accidentes elkarteak konpromisoa hartzen du aurkeztutako argazkiekin Erakusketa ibiltariak egiteko Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan.

## 7. SARIAK

3 Sari emango zaizkie 3 argazki onenei:

1. Saria: ORDENAGAILU ERAMANGARRIA ETA 300 € eskudirutan

2. Saria: ASTEBURUKO BIDAIA eta 200 € eskudirutan

3. Saria: TABLET BAT eta 100 € eskudirutan

## 8. EPAIMAHAIA

Epaimahaia honakoek osatuko dute:

- Proiektuan parte hartzen duten entitate bakoitzeko ordezkari bat.
- Stop Accidentes elkarteko ordezkari bat.
- Argazkigintzako aditu bat.

## 9. SARI BANAKETA

Epaimahairen erabakia Stop Accidentes elkartearen web gunean - [www.stopaccidentes.org](http://www.stopaccidentes.org)-, [Stop Accidentes País Vasco](https://www.facebook.com/stopaccidentes) facebook-eko orrialdean, twitter-en <https://twitter.com/accidentestopPV> eta gure blogean- <http://www.blogseitb.com/stopaccidentes/> -argitaratuko da. Sarituei telefonoz jakinaraziko zaizkie noiz eta non emango diren sariak, erabakia hartu eta 10 egunen barruan.

## 10. IRUDIEN GAINEKO ESKUBIDEAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak irudien erreproduzio eta banaketa eskubideak eta lanari buruzko komunikazio publikoa Stop Accidentes elkarteari doan uztea dakar;



horrela ezartzen da Jabetza Intelektualari buruzko legean, aipaturiko araudian baimendutako gehienezko iraupena ere zehazten baita.

Stop Accidentes elkarteak aurkeztutako lanen irudien erreprodukziori, banaketari, komunikazio publikoari eta ustiatzeari dagozkien eskubideak ditu; halaber, irabazi asmo gabeko erakusketaren argazki erreportajeari eta sari banaketari dagozkien eskubideak ditu, beti ere, egileen izenak aipatuta.

Antolatzaileek ahalmena dute Oinarrietan aurreikusita ez dagoen edozer ebazteko.

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

## 11. DATUAK BABESTEIA

Datu pertsonalak babesteko legeri jarraituz, jasotako datu guztiak gure elkartearen erantzukizunpeko fitxategi batean bilduko ditugu lehiaketa ahal denik eta ondoen kudeatzeko eta oinarri hauetako helburu espezifikoak betetzeko. Datuok eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta kontra egiteko eskubideak indarrean dagoen legearen arabera gauzatuko dira.

## 12. LAGUNTZAILEAK:

Lehiaketa hau Lagun Aro Fundazioaren eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Aldundien laguntzarekin antolatu da.

## 13. INFORMAZIOA

STOP ACCIDENTES PAÍS VASCO

Presidenteordea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkarria eta bozeramailea.

Egoitza: Pinondo Etxea

Pinondo plaza 1

48200 Durango - Bizkaia

Tel.: 946 03 30 00/ 627 29 20 70

Lehiaketari buruzko informazio guztia [www.stopaccidentes.org](http://www.stopaccidentes.org) web gunean aurkituko duzue.

Zehazpenak nahi izanez gero, honako helbidera jo:

[stoppaisvasco@stopaccidentes.org](mailto:stoppaisvasco@stopaccidentes.org)